

456 zenbakia. 2001eko ekainaren 15a
JARDUN ELKARTEA

• Bergarako astekaria

Berrigara



**Kanpoko
igerilekuak
zabalik!**

Musika Eskolaren udaberriko kontzertua domekan | San Antonio jaiak asteburuan



RENAULT

Clio berria



Zatoz ikustera

Clio Sport 2.0 172 cv zuretzat izan daiteke

Zatoz Mecara: aukera daukazu Renault Clio Sport 2.0 172 cv bat eskuratzeko edo
New Yorkerako bi lagunendako bidaia irabazteko!

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA.** Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE.** Tel.: 943 71 24 72



AHT, parke eolikoa, autobideak... bai, baina ez edonola

Fermin Lazkano

Bergara, itxura batean, azpiegituren bilgune bihurtu behar dute. Autopista batetik, Abiadura Handiko Trena bestetik (AHT), Beasain-Durango errepidea hirugarrenetik eta azkenik Irukerutza inguruko Parke Eolikoa.

Orain azpiegitura horien debatea dugu gainean. Nire ustez, azpiegitura horien beharrea gaude, baina egiten ari diren modua ez da ona.

Guk hobeto bizi nahi dugula uste dut. Erosoago, lasaiago, alaiago. Baina guretzako nahi dugun hori ondorengoentzako ere nahi dugu. Eta jakina, ondorengoak gehiago izango dira orain garenak baino.

Horren konponbidea, ekonomiaren hazkundera datza. Ekonomiaren hazkundera inbertsioek eragin erabatekoa dute. Eta hazkunde ekonomikoak naturan duen eragina ere nabarmena da.

Beraz, hiru horiek dira kontutan hartu behar diren faktoreak azpiegitura horien balorazioa egiterakoan: hazkundera, inbertsioak eta natura.

Abiadura Handiko Trena asmakizun bikaina da, baina aitortu behar da bere eremua duela. Esate baterako, AHTk ez du zentzurik 25 km-ko ibilbidea egiteko.

Euskal Herriko AHT 100 Km inguruko ibilbidean ibiliko da, beraz... sekulako inbertsioa hazkunde ekonomikoan ia ez eragiteko. Horrelako trenak ez du zentzurik. Ezberdina litzateke tren horrek Euskal Herriko hiriburuez gain, Lisboa, Bartzelona eta Parisekin lotuko bagintu. Horrelako bat behar dugu.

Autobideak ere bikainak dira. Bilbo eta Donostia edo Donostia eta Iruñea artekoak denok erabili ditugu. Hazkunde ekonomikoan eragin nabarmena dute. Beraz, Beasain-Durango eta Maltzaga-Gasteiz bezalako azpiegiturak egin behar direla uste dut. Baina ez enpresa pribatuak gizentzeko. Izan ere, autopistek eragiten duten hazkunde ekonomikoaren zati bat, ordainsariaren bidez, poltsiko pribatuak gizentzeko lapurtzen digute. Autobiderik bai, baina inola ere ez autobide pribatuak litzateke nire konklusioa. Eta tunel gehiago badute, hobe.

bide pribatuak litzateke nire konklusioa. Eta tunel gehiago badute, hobe.

Parke eolikoak, eraikuntza nazionalaren ikuspegitik, onak dira. Hazkunde ekonomikoak energia behar du, baina gurean sortzeak mendekotasuna murrizten du, prezioa merkatu egin ahal du, lanpostuak bertan sortzen ditugu.

Beraz, energia eolikoa edo beste energia berriztagarriak sortzea inbertsio egokiak dira arrazoi ekonomiko eta politikoengatik (autobideetan bezalaxe inbertsio publikoak behar dutela izan uste dut, ez Iberdrola edo BBVA gizentzeko). Hirugarren faktorea kontuan izanik ere, ez dut uste kalte larregirik eragiten dutela naturan. Eta abantaila bat dute: energia sortzeko beste modu hoberik sortzen bada, parke eolikoak desmontatzean ia ez da igarriko han egon zirenik.

Eta Irukerutzetakoa? Horakoak, ordea, naturari eta gure historiari egingo dion kaltea neurritz kanpoko da. Inguru megalitikoan sortuko lituzkeen arazoak handiagoak dira lortuko genukeen onura baino. Beraz, nire konklusioa: bai parke eolikoei (Elgea esate baterako) baina ez Irukerutzetakoari, tokiak dituen altxor historikoengatik.<

«**Ekonomiaren hazkundera inbertsioek eragin erabatekoa dute. Eta hazkunde ekonomikoak naturan duen eragina ere nabarmena da**»

barruan



Ane Laskurain

udalekuetako arduraduna

«**Umeek uztailean etxetik kanpo jolasteko aukera dira udalekuak**»

6.



Don Serafin

San Antonioko apaiza izandakoa

«**Honorio zen jaietako antolatzaile ia bakarra; berak egiten zuen lan gehiena**»

14.



Mikel Larrañaga

Kortazar tabernakoa

«**Sukaldari lanetan saiatzen naiz, baina ondio be asko daukat ikasteko**»

19.

hi, gazte!



BEKAK

Surfa.
Urola Kostako udal elkarteak.
Surfaren gainean euskarazko fitxak
sortzeko beka. Epea: Uztailak 13.

Soziologia.

Lehendakaritzako
Ministerioa eta Ikerketa Zientzien
Zentroa. Gizarte-zientzietan
lizentziaduna. Ikerketa soziologikorako
hiru laguntza. Epea: ekainak 30.

JARDUERAK

Bideoa.

Donostiako Udala. Larronetxe kultura
etxeko XIII. bideo-astea. Epea: ekainak 22.

Auzolandegiak

Humanes de Madrideko Udala. 18 eta 26
urte bitartekoak. "Prado de la casa" natura-
gelaren auzolandegiak. Epea: ekainak 27.

IKASTAROKAK

Euskara.

Eusko Ikaskuntza, EHU eta SEI.
Euskara-teknikariak, lizentziadunak.
Internet bidezko hizkuntza-plangintzako
ikastarok. Epea: irailak 30.

SARIAK

Argazkia. Zumaiaiko Udala. Euskal
Herriko edozein argazkizale. Zumaiaiko
XIII. Argazki Lehiaketa. Epea: ekainak 22.

LANA

Hiritarrendako arreta zerbitzuko informazio eta tramitazio agentea.

Irungo Udala. Batxilergoa, LH-2 edo
baliokidea. Epea: ekainak 21.

Txistulari bandako zuzendaria.

Irungo Udala. Txistu irakasle titulua
(erdi mailakoa). Epea: ekainak 21.

Albientea.

Azkoiengo Udala. Eskola-graduatuak,
LH-1 edo baliokidea. BTP motako
gidabaimena. Epea: ekainak 22.

Administrari-ofiziala.

Barañaingo Udala. Batxilergoa, LH-2
edo baliokidea. Epea: ekainak 25.

24 administrari laguntzaile.

Iruñeko Udala. Eskola graduatuak edo
LH-1. Epea: ekainak 29.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekode, Ikasle (ISIC),
Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC)
karnetak eskuratzeko, zator
Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO
GUNEAK: Kultura Etxeko bulegoa eta
panelak, eta Irizar jauregiko panelak.
Telefona: 943 77 91 57.
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00.
Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko
elkarte, heziketa zentru eta enpresei
eskertuko genizueke **Gazte Informa-
zio** Gunera igortzea zuen ekintzen,
ikastaroen, lehiaketen eta lan-es-
kaintzen informazioa, bertako gazte-
ei nahiz probintzia gutziokoei informa-
zioa zabaltzeko. **Mila esker.**

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Bezerixia

Bezeroak, erosleak.

– Esniai ura botatzen asi zien da bezerixa gutzia galdu eben.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Ekainak 7, eguena	28 °C	7 °C	– 1/m ²
Ekainak 8, egubakoitza	24 °C	16 °C	– 1/m ²
Ekainak 9, zapatua	24 °C	14 °C	24,0 1/m ²
Ekainak 10, domeka	18 °C	14 °C	16,6 1/m ²
Ekainak 11, astelehena	20 °C	7 °C	– 1/m ²
Ekainak 12, martitzena	27 °C	9 °C	– 1/m ²
Ekainak 13, eguaztena	24 °C	11 °C	– 1/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.

Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Domekak:
10:30.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak:
20:00.

Angiozar

Domekak:
11:00.

Monja Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta
lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.

Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak:
09:00, 11:30.

Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean),
Amillaga (Manso aurrean), San Loren-
tzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta,
San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga
aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre,
Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta
(Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Ola-
tik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta
20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zu-
biaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia
(Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde),
Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amilla-
ga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 15:

PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

ZAPATUA 16:

GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05

DOMEKA 17:

GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05

ASTELEHENA 18:

ESTELLA. Matxiategi 5... 943 76 19 63

MARTITZENA 19:

MOZOS. San Pedro 4... 943 76 12 15

EGUAZTENA 20:

CAMACHO. Oxirondo 4... 943 76 11 74

EGUENA 21:

PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

OGIA

DOMEKA 17... Mizpildi

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIKAK

Anbulatorioa (txanda)... 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa... 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa... 943 76 62 46

Ertzaintza... 943 76 53 40

Osasun Etxea... 943 76 24 40

Asepeyo... 943 76 16 43

Pakea... 943 76 13 49

Angiozarko medikua... 943 78 90 27

Antzuolako medikua... 943 76 62 23

Odol emaleak... 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak... 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea... 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea... 943 76 62 46

Udal Artxiboa... 943 77 91 32

Igerilekuak... 943 76 20 51

Kultur Etxea... 943 77 91 58

Liburutegia... 943 77 91 62

Kiroldegia... 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia... 943 76 14 92

Erregistroa... 943 76 13 15

Jardun... 943 76 36 61

Idolaz... 943 76 65 08

Jubilatuaren Etxea. Bergara... 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuaren elk... 943 76 62 71

Postetxea... 943 76 26 85

Bedelkar... 943 76 04 68

Akulu AEK... 943 76 05 18

Udal euskaltegia... 943 76 44 53

Bergarako notaritza... 943 76 10 73

oharrak

■ **1960an jaiotakoen afaria** ekainaren 23an Osintxuko Txuringo jatetxean, 21:30ean. Taldeko argazkia Osintxuko frontoian, 21:00etan. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) BBVA n irekitako kontu korrontean ekainaren 15era arte egin daiteke.

■ **Mariaren Lagundiko jaiak** zapatuan, ekainak 16, 10:30etik aurrera. Goiz eta arratsaldez lehiaketak, jolasak, dantzak, paella lehiaketa, aktuazioak eta beste hainbat ekitaldi izango dira.

■ **Ipintza institutua.** Datorren ikasturtean DBHko lehen kurtsua egin behar duten ikasleen gurasoentzako bilera martitzenean, hilak 19, Ipintza institutuko aretoan, 19:00etan. Bertan kurtsu berrirako argibide eta zehaztapen guztiak emango dituzte.

■ **Aranzadi** ikastolako gurasoen kontseiluak antolatuta, afari-merienda eta San Juanak izango dira ikastolako patioan ekainaren 23an. Afari-meriendarako txartelak ikastolako idazkaritzan salgai astelehenera arte.

■ **Udaleko Gizarte Zerbitzuak** antolatuta, drogen inguruko ikerketari buruzko hitzaldia izango da martitzenean, hilak 19, Kultura Etxean, 18:30ean. Hitzaldia gurasoei zuzenduta dago eta ikerketa egin duen Siadeco enpresako kide batek emango du.

■ **EH.** Batasuna prozesuaren barruan zapatuan, ekainak 16, batzarra izango da Miguel Altuna

institutu zaharreko aretoan, 10:00etan. "Eraiki nahi dugun herritarren batasuna" eta "Ildo politikoa" zatiei egindako zuzenketak aztertu eta bozkatu dituzte.

■ **San Martzial** egunerako Bai Euskal Herriari plataformak kamisetak aterako ditu. Ekainaren 22an, 23an eta 30ean San Martin plazan salduko dituzte.

■ **EHE.** Ekainaren 23an Gasteizen ofizialtasunaren alde egingo den manifestazioa joateko auto karabana aterako da Frontoitik, 15:30ean.

jardunen agenda

■ **Kuadrillategi egitasmorako dinamizatazailea:** Bete beharreko baldintzak: 20 urte beteta izatea, Bergaran edo inguruan bizitzea, euskara menperatzea, Pedagogia, Soziologia, Gizarte Hezkuntza nahiz magisteritza ikasketak izatea. Bidali curriculumak Jardunera ekainaren 30a baino lehen.

*Hurrengo alean,
ekainaren 22tik 28ra
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

zorionak!



Markel Labaka
18an 3 urte.
Urte askotarako!
Eukene.



Nerea Larrañaga
16an 4. Urte askotarako!
Aitxitza Jose Antonio eta amama Maritxu eta Joxepa.



Alex Alferez
17an 4 urte.
Urte askotarako!
Aita, aitona-amonak eta osaba-izebak.



Jon Gantxegi
20an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak, lagunak eta Itsaso.



Alatz Lazpita
17an 5 urte.
Urte askotarako!
Lehengusuak.



Mikel Alberdi
18an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak, Maitane eta Maddi.



Ane Blanco
17an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, eta aitona-amonak.



Maria Jose Frago
17an 34 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpak.



Eva Conget
17an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aitzol eta Endika.



Unai Arietealeaniz-beaskoa
16an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Yasmina Moreno
21ean 11 urte.
Urte askotarako!
Shere eta gurasoak.



Asier Vicente
19an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Poligonokoak.



Iosu Gorosabel
17an 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Olaia Sanchez
17an 3 urte.
Urte askotarako!
Julen eta gurasoak.



Mikeldi Bengoa
20an 30 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Malin.



Sergio Lopez
18an 6 urte. Urte askotarako!
Gurasoak, osaba-izebak eta aitona-amonak.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🔧 Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3



ARRI
Industri hornidura

Zubiaurre, 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Sakelakoa: 656 78 64 84.



Asteburuetan bertako *babak eta saibeskia*

SALVADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

Ainhoa Arbelaitzekin batera, uztaileko udalekuetakako arduradun da Ane Laskurain. Azken urteetan 400 ume inguruk ematen dute izena udaleku irekietarako. Aurten beste horrenbeste esku hartuko dute.

G. Uztaileko udalekuetakarako izena emateko epea amaitu da. Zenbatek eman dute izena aurten?

E. Laurehun inguruk. Plaza finkoak hirurehun eta berrogeita hamar ziren, eta laurehun hartu ditugu. Edo, hobeto esanda, hartu ahal izan ditugu. Izan ere, hirurehun eta berrogeita hamar ume baino gehiago hartzea ikastetxeek uzten dizkiguten gela kopuruaren arabera dago. Horixe da arazoa: gelak. Guk bestela ez daukagu inongo arazorik ume gehiago hartzeko; begirale gehiagorekin eginga dago. Baina leku faltan ibiliz gero...

Zorionez, azken bi urteetan plaza mugatuetatik kanpo ere beste berrogeita hamar inguru hartu ahal izan ditugu.

G. Laurehun ume horiek nola antolatuko dituzue?

E. Hiru urtetik hasi eta hamalau urtera artekoak etortzen dira udalekuetara. Bosgarren mailakoek, ja, ez dute etorri nahi izaten, eta hortik gorakoek ere ez.

Umeak taldetan banatzen ditugu, hamarreko taldetan, eta beti adinaren arabera izaten dira. Azkenean, ikastetxeetako banaketa errespetatu egiten dugu. Bestalde, talde bakoitzeko begirale bana izaten dute neska-mutikoen.


G. Nola aukeratzen dituzue begiraleak?

E. Lehiaketara ateratzen dira uztailerako begirale postuak. Lehiaketara atera behar izaten dira, gainera.

ANE LASKURAIN

Udalekuetako arduraduna

«Umeek uztailean etxetik kanpo jolasteko aukera dira udalekuak»



Ane Laskurain da uztaileko udalekuetako arduradunetako bat.

Izan ere, jende ugari ematen du izena lan horretarako, behar izaten duguna baino gehiagok. Eta aukeraketa egin behar da. Horretarako proba bat egin behar dute, azterketa bat, alegia.

Baina, egia esan, batzuetan justu xamar ibiltzen gara begiraleak topatzeko. Izena emateko orduan jende ugari ematen du, eta

«Txikitxoek dira, agian, udalekuetan ondoen pasatzen dutenak. Hala ere, badira aspalditik etortzen diren nagusiagoak ere»

horregatik probak, baina, gero, askok beste lan batzuk topatzen dituzte eta hau utzi egiten dute. Azkenean udalekuetakoa lan egiteko beste aukera bat da, eta hobe topatuz gero, bada...

G. Berritasunik izango da aurtengo udalekuetan?

E. Apartekorik ez. Uztailearen 2an hasiko da eta 27an amaitu, 10:00etatik 13:00etara. Hori bai, adin bakoitzaren arabera programaketa egiten dugu beti. Bestalde, ekitaldiei dagokienez, urterokoak izango dira gutxi gorabehera. Egun handia, esaterako, San Fermin eguna izaten da, eta altxorren bila jolasa ere asko gustatzen zaie.

G. Gurasoek lasai uzten dituzte umeak udalekuetan?

E. Hori eurek erantzungo lukete hobeto. Sekula ez dugu inongo kezurik izan.

G. Zein da gurasoek seme-alabak udalekuetara bidaltzeko arrazoi nagusia?

E. Data horietan guraso asko dago oraindik lanean, beste batzuk etxean izango dira, baina umeak etxean egon beharrean, aukera oso ona da kalean jolasean ibiltzeko. Gainera, gustura ibiltzen dira eta gurasoek badakite non dauden umeak, eta erantzukizuna ere badagoe. Etxean zer egingo dute, bada, umeek? Eta kalean ere zer dute, bada?

G. Neska-mutikoen etorri nahi dute edo gurasoek bidaltzen dituzte?

E. Denetarik dago. Txiki-txiki enen kasuan gurasoek bidaltzen dituzte. Baina agian ondoen pasatzen dutenak dira. Ez dut esan nahi gainerakoek ez dutenik ondo pasatzen, baina txiki-nendako berria da. Nagusitxoagoetan badira urtero-urtero etortzen direnak. Eta pentsatzen dut urtero etortzen badira eurek nahi dutelako izaten dela.

Euroa erabiltzen ikasteko astea bihar, zapatua, amaituko da

Euroa gero eta hurbilago dugu. 2002ko urtarrilaren 1ean gure artean izango da. Hori kontuan izanda, euroaren astea antolatu du udalak. Helburua da moneta berria erabiltzen ikastea, hel-tzen denean moldatzeko arazorik ez izateko.

Gutxi falta da euroa hel-tzeko. Eta moneta berria erabiltzen ikastea kontuan hartzeko gauza da. 2002ko urtarrilaren 1erako, dendari eta kontsumitzaileok, prest egon behar dugu.

Hori dela eta, udalak, Euroaren astea antolatu du. *Euroekin bizi* lelopean, hainbat ekintza antolatu ditu euroarekin ohitzen joan, eta moneta berrira moldatzeko arazorik izan ez dezagun.



Udal, Diputazio eta Kutxako ordezkariak Euroaren astearen aurkezpenean.

Aste honetan zehar, hainbat ekitaldi egon dira euroarekin lotuta. Dagoeneko merkataria, ostalari eta irakasleek prestakuntza saioak jaso dituzte. Bestalde, eguaztenetik aurrera, euroa eskuartean erabiltzeko aukera izan dugu.

SIMULAZIOAK

Bihar arte ere San Martin plazan dagoen Kutxako bulegoan, euroak pezetan truke aldatuko dituzte. Ondoren, izena eman duten herriko 61 komertzioetan erosketak eurotan egiteko aukera izango da. Denda horiek

zein diren jakiteko, kartel-txo bat izango dute atean.

Horrez gain, eta bihar arte hori ere, euroari buruzko informazio postuak martxan jarraituko du udaletxe-ko sarreran. Han, egoera ekonomiko berriaren aurrean izan ditzakegun galderak erantzungo dizkigute.

Eguazten goizean aurkeztu zuten udalean 'Euroaren astea'. Aurkezpenean Kutxa, Diputazio eta udaleko ordezkariak izan ziren. Izan ere, aste hori antolatze-ko hainbat laguntza jaso du udalak.

Euroaren astea bihar, zapatua, amaituko da. Egun hori, batez ere, hurrei zuzenduta dago. Arratsaldeko 16.30etik aurrera, San Martin plazan eurojolasak, gaztelu puzgarriak eta pailazoak izango dira.


Jose Mari Etxaniz domekan utziko dute aske, seguruenik, 21 urteren ostean

Jose Mari Etxaniz, Bergarako preso, domekan, hilak 17, askatuko dute, seguruenik. Auzitegi Gorenak, kartzelatik irteteko beharrezkoak diren paperak sinatzera eman dizkio,

behintzat. Bergarara plataformak autobusak antolatu ditu Salamancara joan eta Topaseko espetxetik irteten harrera egiteko.

Etxanizek 21 urte egin zituen kartzelan otsailaren

19an. Nahiz eta odol delituri- ez agertu, epaileak 34 urteko kartzela zigorra ezarri zion. 1999. urtetik, Salamancako Topasen dago, nahiz eta 1995. urtetik aske egon behar zuen.



Jose Mari Etxaniz.

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

ATARI

Zure auzo elkarteko, etxebizitza eta garajeko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxa 943 76 38 41

URRATS

TABERNA

KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92

Mugarik gabeko greban dira Zuber SA lantegiko langileak

Eguaztenetik mugarik gabeko greban daude Zuber Sako langileak. Enpresako zuzendaritzarekin lau punturen gainean akordiorik ez lortzeagatik erabaki dute greba egitea, langileek azaldutakoaren arabera. Bat: soldata igoera eskatu dute, %14koa. Izan ere, «inguruko enprekin alderatuz oso soldata baxua» kobratzen dutela diote, eta izaten duten igoera bakarra, konbenioak dioena baino ez dela. Gainera, enpresak irabaziak baino ez dituela kontuan izan behar da. Bi: bajak %100 kobratzea eskatzen dute. Hiru: ordu estrekin amaitzea nahi dute. Lau: urteko lanaldia 15 ordutan jaiste nahi dute.

Hainbat negoziazioaren ostean, lehen hiru puntue-



Langileek hainbat kontzentrazio egin dituzte enpresa aurrean.

tan akordioa posible dela azaldu dute langileek, nahiz eta enpresak soldataren %14ko igoera 3 urtean egitea proposatu dien. Bajen kasuan, akordioa egon daiteke. Ordu estrak ere negoziatu daitezke. Baina, lanaldiaren murrizketa, aldiz, ez. Horregatik, langileek muga-

rik gabeko greba egitea erabaki dute, eta hasierako zazpi puntuko proposamenera itzuliko dira. Bestalde, negoziatzaileak prest daudela azaldu dute, eta zuzendaritzak noiz deituko zain daude. Osterantzean, langileek gogortu egingo dituzte euren protestaldiak.

Istiluengatik elkartasuna adierazi dutenak eskertu ditu udalak

Joan den ekainaren 3an, Pazkoetako domekan gertatutako istiluen aurrean elkartasuna adierazi duten guztiei eskerrak luzatu nahi dizkie publikoki Udal gobernu batzordeak.

Bestalde, erredakziora bidalitako beste ohar baten

bidez, Manso Optikako jabeen inguruan hainbat komunikabidetan azaldutako informazioa gezurtatu nahi du.

Ohar horren arabera, Bergarako Udaleko gobernu taldeak publikoki adierazten du, «Pilar Manso eta

Fernando Revuelta, Manso Optikako jabeak, ez direla Bergarako Udaleko zinegotziak izan, ez orain, ezta aurretik ere. Eta ez direla inoiz azaldu udal hauteskudeetarako alderdi politikoen aurkeztutako hautagaien zerrendetan».

Elbarritu eta adimen urrituendako laguntzak

Elbarrituendako

banakako laguntzak honakoetara mugaturik daude. Bat: 60 urtetik beherakoendako laguntza espezializatua; hau da, erakundeetako tratamendua eta famili harre- ra. Bi: laguntza teknikoak. Hiru: orokorrean ez dira kontuan izango Diputazioko Gizartekintza- ren Zerbitzuak aurrez aztertu dituen eskaerarik. 50.000 pezetatik beherako laguntza tekniko- en eskaerak ere ez dituzte kontuan izango. Laguntza horiek guztiak, etxeko diru sarreraren barremoen arabera emango dituzte. Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 10ean amaituko da.

Bestalde, Uliazpi Fundazioak martxan jarri du, aurten ere, adimen urritasun larria edo handia duten pertsonen familiakoek udan atsedendaldia hartzeko programa: 'Respiro' izeneko programa. Zerbitzu hori abuztuan izango da, Fundazioak Donostian duen egoitzan.

Informazio gehiago eta laguntzak tramitatze- ko, Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuekin harremanetan jarri: 943 77 91 65.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



BANKINTER

%4,95etik aurrera lehen 3 urteetan

*Irekiera
komisioa:
%0,25.
35 urte
bitartean

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

Atzera bota du udalak AHT Gelditu! taldearen mozioa

Atzera bota dute AHT Gelditu! Elkarlana plataformak udalean aurkeztutako mozioa. Joan den egubakoitzean egindako bilkuran, EAJ/EAk ez zuen mozioa onartu. EHk, aldiz, bai. PSE-EE eta PPko ordezkariak ez ziren bilkuran izan.

Mozioak zera eskatzen zion udalari: administrazio errekurtsua tartekatzea Eusko Jaurlaritzak onartu duen Trenbide Sarearen Lurralde Antolamendurako Planaren dekretuaren aurka. Izan ere, plan hori onartuz, AHTren proiektua ere onartuta geratzen da eta. Eta hori onartuta, errekurtsua tartekatu eta aurrera eramateko pertsona bat izendatzea.



Hainbat lagun, astelehenean, hilaren 16ko manifestazioa iragartzen.

EHren ustez, inposatutako proiektua da AHT. Gainera, azpiegitura hori hain erraldoia izanik, gizartean eztabaidarik egon ez izana larria dela uste dute, eta udal kaltetuek, Bergarakoak

kasu, ezertarako aukerarik izan ez dutela ere gaineratu zuten. EAJ/EAREN ustez, gaur egungo zirkulazioari irtenbidea emateko modua da AHT, eta baita kutsadura gutxitzekoa ere.

San Martzialerako mahaiak hartzeko epea zabalik

San Martzial egunerako mahaiak eskuratze-ko epea astelehenean irekiko dute. Mahai bakoitzak (zortziren bat lagunendako gutxi gorabehera) 2.500 pezeta baliatu dituzte. Interesatuak kultura etxetik pasatu beharko dira izena emateko. Astelehenetik aurrera, 18:00etatik 21:00-etara bitartean.


Turismo bulegoak atek zabalik irailaren 30era arte

Gaur, ekainak 15, turismo bulegoa irekiko dute udako denboraldiari begira. Irailaren 30era arte egongo da zabalik, eta honako ordutegia izango du: astelehenetik egubakoitzera 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era; domeka eta jaiegunetan 11:30etik 14:30era. Bestalde, bisitaldi gidatuak egingo dituzte egunero, doan.

Aurtengoa lehen aldiz izango da bulegoa iraila osoan irekita egongo dela. Irailean hainbat turista hurbiltzen da eta horiei erantzuteko egongo da irekita.

Ertzain etxe berria martxan dago

Maiatzaren 31n hasi ziren Ertzaintzako kideak ertzain etxe berria erabiltzen. Hala ere, oraindik ez dute Arrizuriko etxea utzi, eta Barne Sailaren arabera, ertzain guztiak komisaria berrira noiz igaroko diren jakiterik ez dago, oraingoaz. Azalpenetarako aurkezpen ofiziala egingo dutela aurreratu dute.



Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 beheha
Tf. 943 76 59 54 BERGARA

Berrigara

456 zenbakia.
2001eko ekainaren 15a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usua Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Juan Martin Elexpuru, Arantzazu Oregi,
Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.500 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jauriritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Euroaren astia antolatu dau udalak. Zuk uste dozu euroari buruzko informaziño nahikua daukagula?



Silvia Jimenez

Ez, neri, gaiñera, asko kostatzen jat holako gauzak ikastia. 2002. urte hasieran nahiko galduta ibilliko gara danok be.



Mari Paz Garcia

Zentimuak erabili giñunok errez ohittuko garela esaten dabe, baiña neri, behintzat, kostauko jat. Kezkia daukat horren gaiñian.



Garbiñe Irizar

Ez. Udalak antolau dittuan berbaldixetara juateko asmua daukat, oso ondo etorriko jatela pentsatzen dot-eta.



Juan Miguel Edroso

Euroa iristen darian, nik uste dot nahiko galduta ibilliko dala jendia. Laster ohittuko gara, baiña hasieran ez da erreza izango.



Vicente Santamaria


Ez daukagu informaziño askorik. Euroakin hasten garenian problemak edukiko dittugu. Baiña pixkanaka ohittuko gara.



Valle Rodriguez

Nik uste dot informaziñua emoten dabela. Kontua da atentiño pixka bat jartzia. Atentiñua jarri ezkeru, nahikua informaziño dago.

tira biraka bittor rodriguez





Txuringo Jatetxea



~Menua eta karta
 ~Ezkontzak
 ~Jaunartzeak
 ~Txerrikumea, bildotsa,
 baserriko oilaskoa labean erreta...


OSINTXU. Tf. 943 76 48 63

ALZAS

bobinatze elektrikoak, SL

Korronte alferno eta zuzeneko
 makina elektrikoan eta lastertasun
 haundiko indukzio-makinen
 konponketa eta bobinatzea.

Motorren fabrikazioa.



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA • Telefonoa: 943 76 64 14 • Faxa: 943 76 62 99

adituen esanetan

Dislexia

Dislexia irakurtzeko eta idazteko gaitasunaren disfuntzioa da eta bere jatorria ez da ezagutzen. Gizonezkoei emakumezkoei baino lau aldiz gehiago afektatzen die. Gaztetxo dislexikoek arazorik gabe ulertzen dute ahozko hizkuntza; arazoak irakurtzeko eta idazteko dituzte. Elebidun dislexikoek zailtasun bikoitzari aurre egin behar diote, konplikatuagoa egiten zaien hizkuntzarekin arazo gehiago dituztelako.

Esan bezala, alterazio horren jatorria ez dago batere argi. Hainbat ikertzaileraren arabera, tartean oinarri heredagarria izan daiteke eta kasu horretan kromosoma baten alterazioa irakurketaren alterazioaren eragilea da. Dislexia irakurkuntza txarraren ondorio dela diotenak ere badira. Era berean, ezin da baztertu arazo neurologiko posible batek ere dislexia ekar dezakeenik atzetik.

Dislexiak mila aurpegi ditu, modu ezberdinean agertzen delako eta arazo aldakorak dituelako.



EMILIO IMAZ

Medikua


«Dislexikoek arazo barik ulertzen dute ahozko hizkuntza, baina, aldiz, arazoak dituzte irakurri eta idazteko orduan»

Bost urtetik gorako adinetan detektatzen da dislexia. Umeek ezker-eskuma, gora-behera edo bestelako oinarriko ezagutzak nahasten dituzte. Irakurtzeko orduan, letrak kendu edo gehitzen dituzte, hitzak ezagutzea kostatzen zaie, silabaka irakurri beharra dute edo huts ortografikoak egiten dituzte.

Arazoa igarokorra izan daiteke, baina kezkatzeko modukoa da neska-mutikoek etxeko lanak egiten denbora gehiegi ematen dutenean edo asko saiatu arren, ez dutenean uler-


tzen irakurtzen dutena. Dislexia ez bada zuzentzen eskola-porrota gerta daiteke. Eskolan porrot egin zuten 7-22 urte bitartekoekin egin zen ikerketa batean 3/4ak dislexia sintomatologiarekin bat egiten zuela ikusi zen.

Dislexia ez dago inteligentzia-kozientearekin lotuta, zuzen daiteke eta estatuan bada dislexiaren gainean ari den elkarte bat. Web orria (www.dislexia.net) eta telefono zenbakia (91 715 70 51) daukate.



Dislexia irakurtzeko eta idazteko gaitasunaren disfuntzioa da.

bergarako zuhaitzak



Indigaztainondoak Bideberrin.

Indigaztainondoa

Indigaztainondoa (*Aesculus hippocastanum*), jatorriz, Penintsula balkaniarrekoa eta Bulgaria ekialdekoa izan arren, sarritan ikusten da kale eta parkeetan itzal-zuhaitz gisa landatua, Bideberrin eta Usondo parkean, esate baterako. Baina azken urteotan gaixotasun bat zabaldu da lorategi eta parkeetako indigaztainondotan, *Guignardia aesculi* onddoak sortua; hostoak poliki-poliki ihartu egiten dira eta zuhaitza erabat ahuldurik geratzen da.

Indigaztainondoa gorputz handiko zuhaitza da, 25 metro luze har dezake eta ez ditu inausketak ondo onartzen, egurra, biguna eta arina, azkar usteltzen baita; arrazoi horregatik, beharrezkoa da landatu aurretik kontuan hartzea hazi eta gero hartzen duen altuera eta zabalera; honela, inausketak galaziko ditugu, horiek askotan arriskuan jartzen baitute zuhaitz horien bizi iraupena, adibidez, Bideberrin.

Hostoak handiak, aurkakoak, txorten luzekoak eta zerratuak dira. Maiatzekainean loratzen da; loreak zurixkak eta usaintsuak dira eta panikula tenteak eratzen dituzte. Fruitua uda bukaeran edo udazkenean heltzen da; fruitua handia eta biribila da, eta azal marroi baten barruan eratzen da, azken hori 2-3 indigaztaina dituen arantzadun poltsa baten barruan hazten dela. Haziak mingotsak dira eta toxikoak dira; arrazoi horregatik, fitoterapiari indigaztainondoaren azala erabiltzen da (beste erabilera batzuen artean), barize eta hemorroide lehorgarri gisa.

Testua: Maitane Arizabaleta.



ARITZ BIKUÑA

Dordokakoak fin

Maiatzaren 19 eta 20an, Espainiako **slalom txapelketa** jokatu zuten **Oviedon**. Dordoka taldeko **Aritz Bikuña** bergararra bederatzigarren sailkatu zen, eta **Dordoka taldea bigarren** geratu zen taldekako sailkapenean. **Agustin Toledo**, berriz, **Leganesen** jokatu den Espainiako atletismo txapelketara joango da oraingo asteburuan. Pisu jaurtiketako proban esku hartuko du. Ea, bada, txapela jantzita bueltatzen den!

Telesfororen omenezko astea Donostian

Telesforo Monzon abertzale eta euskaltzale bergararra hil zela hogeitau bete direla eta Herria elkarrekin bere omenezko astea antolatu zuen joan den astean. Aste osoan erakusketa bat ikusgai egon zen Ikatz Auzo Biltegian. Bi hitzaldi ere egin zituzten: ekainaren 7an, **Iñaki Egañak eta Jose Luis Elkorok** eta egubakoitzean, berriz, **Koldo Izagirre** idazleak.



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



MILA ELORTZA



MILA ELORTZA

Jende ugari eskola txikien aldeko jaian

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, **jende ugari** bildu zen domekan Angiozarren ospatu zuten eskola txikien aldeko jaian. Euria izan zuten lagun egun osoan, baina ez ziren horregatik kikildu eta giro ezin hobean ibili ziren. Gipuzkoako **eskola txiki guztietako umeak** izan ziren jaian, baita eskola txikien aldeko aldarrikapenarekin bat egin nahi izan zuen hainbat lagun ere. 'Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik' lelopean ospatu zuten eguna, eta Angiozarren, behintzat, jarri zuten, bai, bizitasunik domekan.

Mujika
geologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



Danborradan, 1973. urtean, 'udal korporazioa'; ezker- eskuma: Jabier Manso, Honorio Agirregabiria, Florentino Laskurain, Antonio Fernandez eta Saturnino Agirrebeña. Argazkia: María Angeli Agirrebeña.

San Antonioko jaiak

Danborrada izan zen urtetan jaietako protagonista nagusia

Eguaztenean, hilak 13, Paduako San Antonio eguna izan zen. Eta, noski, San Antonio auzoan egun hori ospatu zuten, eta asteburuan jarraituko dute ekitaldiekin. Besteak beste, mus txapelketa, dantzaldia, eta txirrindularitza lasterketa egingo dituzte. Aurten, gainera, lasterketak izen propioa dauka: Honorio Agirregabiria, hain zuzen ere. Nolakoak ziren, baina, garai bateko San Antonioko jaiak?

Auzo askotan gertatu bezala, San Antonion ere, urteekin, gainbehera nabarmena izan dute hango jaiak. Hala ere, Paduako San An-

tonioren festa ospatzen jarraitzen dute. Aurten, esaterako, auzoko gazte koa-drila bat arduratu da egitaraua prestatzeaz. Lauzpabost lagun aritu dira horretarako lanean. Duela zazpi bat urte hasi ziren auzoko gazte horiek jaiak

antolatzen. Euren esanetan, «urtetan aritu zen adineko jendea jai hauek antolatzen, baina horrelakoan ardura gazteok hartu behar dugu. Izan ere, horretarako energia gehiago daukagu». Iaz, hala ere, ez zituzten jaiak ospatu. Alde

Zuri Beltz margoak


Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



**Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86



**G U R E N
P I N T U R A K**

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

batetik, jende gutxi elkartzen delako antolaketarako; eta, bestetik, dirua ere arazoa izaten delako, euren esanetan.

DANBORRADA IRITSI AURRETIK

Honorio Agirregabiria zen garai hartan antolatzaile nagusia, eta auzotarrek gogoratzen dutenez, gainera, ia bakarra. Izan ere, auzoko batzuk laguntzen zioten arren, bera arduratzen zen egitarau osoaz. Baina, garai hartan, 1969 aurretik, ez zuten egiten gero hain ezaguna bilakatu zen danborrada. Lucia Farrasek gogoratzen duenez, «erromeriak, dantzaldiak, meza eta bestelako ospakizunak egoten ziren; umeendako ere gauza asko egoten zen, kukañak, esaterako. Honorio, baina, ia urtero asmatzen zuen zeozer berria; akordatzen naiz behin, apustu bat egin zuela: zeinek azkarrago egin Surratik joan etorria». Luciarene esanetan, lan handia egin zuen Honorio zenak San Antonion.

DON SERAFINEKIN, DANBORRADA

1964an etorri zen Bergarara Don Serafin Esnaola; eta ondo gogoratzen ditu garai haietako San Antonioko jaiak. Bere esanetan, «Honorio Agirregabiria aritzen zen garai hartan jaiak antolatzen; berak egiten zuen ia lan guztia». Baina, hark laga zionean, pare bat urtean ez zuten Paduako San Antonioren festarik ospatu. Don Serafinek katekesia ematen zien auzoko zein Bergarako umeei. 13-14 urteko bere ikasleek jaiak antolatu beharra zegoela ikusi, eta halaxe hasi ziren Don Serafin eta neska-mutikoak San Antonioko jaiak prestatzen. 1969. urtean izan zen hori. Eta Don Serafinek ere asmatu zuen berrikuntzarik auzoko jaietarako.

Donato Ormazabalek azaldu digunez, «Don Serafin Gure Ametsako bazkidea zen, eta gainerako bazkideoi danborrada egiteko asmoa zuela azaldu zigun». Begi onez ikusi zuten ideia



Aurten ez dute danborradarik egingo, baina datorren urterako badute asmoa. Argazkia: Purita Garcia.

hura, bai Gure Ametsa elkartekoek, baita auzotarrek ere. Baina, baldintza bakarra jarri zioten: berak ere parte har zezala danborra jotzen. Eta, Don Sera-

fin, nola ez, danborra eta sukaldari txapela hartu, eta danborradan aritu zen.

Bi danborrada egiten zituzten: umeena, domeka arratsaldean; eta nagusiena, berriz, zapatu gauean. Lucia Farrasek gogoratzen duenez, arrakasta itzela izaten omen zuten danborrada biek; baita San Antonioko jaiak ere, oro har. Bergarako jende mordoak joaten zen San Antoniora.

Egitaraua

EKAINAK 16, ZAPATUA

11:00:

Txorizoa eta salda.

12:00:

Txikiteo herrikoia.

16:00:

XVI. Mus 'Relampago' txapelketa.

16:30:

Txirindulari lasterketa. Bigarren urteko kadeteak. LXV. San Antonioko saria.

17:30:

Kukañak, buruhandiak eta txokolatada.

23:30:

Dantzaldia, Aitana orkestrarekin.

EKAINAK 17, DOMEKA

09:00:

Diana. Txokolate beroa gaupasero eta goiztiar guztientzat.

ERREGINA, DAMAK, SUKALDARIAK...

Danborradan, aurrenengo, udal korporazioz moztortuta joaten zen lagun koadrila bat; besteak beste, Florentino Laskurain, Donato Agirrebeña, Honorio, Kopi, Saturnino Agirrebeña, Antonio Fernandez...

«Korporazio» horren atzetik, sukaldari jantzitako koadrila bat joaten zen, eta ondoren, danborrada bera. Eta baita, tartean, karroza ere; traktore bat izaten zen karroza hori, eta gainean, erregina eta bi dama. Danbor hotsak lagunduaz, musika ere ez zen falta izaten; horretarako, auzokoren baten kotxe gainean megafonia jarri, eta halaxe konpontzen ziren.

LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

**OILAGORRA
TABERNA**
Barrenkalea 21 BERGARA

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

**GURIA
Taberna**
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

Auzotar gehienek parte hartu dute San Antonioko danborradetan; batzuk umeenean, nagusienean besteek...

Luciak ere ondo gogoratzen ditu orduko danborradak, baita egin zuten lehendabizikoa ere: «1969. urtea izango zen; gaueko 22:30ean zen danborrada, eta 21:00etan oraindik ez genuen inor lortu erregina eta dama joateko. Hura zen, hura, egoera! Lehendabiziko danborrada, eta erreginarik gabe!» Izan ere, Luciaren esanetan, ez zen lan erraza izaten erregina eta damak topatzea; inork ez omen zuen nahi izaten: «izugarritzko lotsa ematen zion jendeari karrozan ateratzeak».

Don Serafin hogei bat urtean ibili zen jaiak antolatzen, 1989an Donostiara joan zen arte. Orduan, berari laguntzen ibili zirenek hartu zuten ardura.

GAURKO JAIAK

Esan bezala, duela zazpi bat urte auzoko gazte koadrila bat hasi zen jaiak an-



Don Serafinek ere urtero parte hartzen zuen danborradan. Argazkia (1976): Maritxu Lizarralde.

tolatzen. Iaz ez zuten jairik ospatu. Aurtentan, danborradarik gabe, baina egitarau polita osatu dute. Azaldu digutenez, urte batzutan, bi lagun besterik ez da ibili

jaietarako lanean. Eta, noski, horrek nekatu egiten ditu antolatzaileak. Hala, datorren urteari begira "fitxaje" berriak egin dituzte, eta dagoeneko hasi dira danborrada, kontzertuak eta beste hainbat ekitaldi prestatzea pentsatzen. Beraz, gogoia, behintzat, ez zaie falta.

San Antonio eguna ekainaren 13an izaten da. Joan zen eguaztenean, beraz. Egun horretan, goizeko 10:30ean meza ospatu zuten auzoko ermitan. Aipatzeakoa 1998ko abenduan bota zutela San Antonio ermita. Ordutik, auzoko garaje bat bilakatu dute ermita. Meza ostean, berriz, luntxa izan zuten Gure Ametsa elkartearen.

Jai egitaraua, baina, bederatzi egun lehenago hasi zuten. Izan ere, ohiturari jarraituz, bederatziurrena egiten dute; ekainaren 5etik 13ra, egunero arratsaldeko 20:00etan errosarioa errezatzen dira auzotarrak ermitan. Garai baten, Don Serafin auzoko apaiza zela, meza eta errosarioa egiten zuten. Eta, asteburuan, dantzaldia, umeendako jolasak, kadeteendako Gipuzkoako txirrindularitza lasterketa...<

Honorio Agirregabiria gogoan

Asko izan dira urtetan zehar jaiak antolatzen ibili direnak, tartean, Honorio Agirregabiria. Urte mordo eman zuen San Antonioko jaiak antolatzen. Eta baita San Antonioko lasterketa antolatzen ere, Algodonerako saria deitzen zena. Iaz hil zen Honorio; horregatik, aurtengo jaietan omenaldia egin nahi izan diote, eta San Antonioetako txirrindulari lasterketari bere izena jarri diote; Honorio Agirregabiria memoria izango da, beraz, aurrerantzean. Honorio lan handia egin zuen auzoko jaiak antolatzen. Auzoko edozeini jaien inguruan galdetuz gero, denek aipatuko dizute Honorio zena. Txirrindularitzarekiko ere zaletasun handia zuen, eta txirrindulari onentsuenak ekartzen zituen lasterketan parte hartzera: Jesus Loroño, esaterako.



GORLAKO KANTINA

30 urteren ondoren, domekan, ekainaren 17an, itxiko dugu

Bezero eta lagunok gonbidatuta zaudete domeka eguerdian tragotxo bat hartzera!

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



Udako Ikastaroak / Barnetegiak



Lotsarik gabe!

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak,
ALFABETATZE eta EGA.

Erritmoak

Egunean 4 edo 5 ordu, goizez.

16 urtetik gorakoentzat.

Bulego ordutegia

Goizez: 08:30-12:30
Arratsaldez: 14:30-18:30

Ikastaroaren iraupena

Ekainaren 26tik uztailaren 20ra.

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 11tik 22ra.

Barnetegia

Uztailaren 1etik 15era ZERAINen.



UDAL
EUSKALTEGIAK

**BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: AGIRRE HORTZ KLINIKA.** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23 • **ARAMBURU HORTZ KLINIKA.** Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46 • **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HORTZ KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irupe.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g.

943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekz.

943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa).

943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

■ **SEXOLOGOAK: ANA OIARZUN** Errebal 12, 2 esk., EIBAR. 943 70 24 46

Osasunez bizi izateko!

Osintxuar honek 27 urte dauzka eta Kortazar tabernako arduradunetako bat da. Martitzenian egin zeben inauguraziñua. Mikelek 10 urte eman ditu Aritzeta abesbatzan eta Gipuzkoako abesbatzen federaziñoko direktiban be egon da.

Mikel Larrañaga

Zer dala eta "Eje" gaitzizena?

Erria ez dotelako ondo ahoskatzen.

Txikittako kontuak.

Barra atzian ala aurrian nahixago?

Atzian denbora asko egoten naizenez, aurrian nahixago.

Juergazalia zara?

Total.

Jairik onenak, zeintzuk?

Herri txikixetakuak eta giro jatorrak.

Tabernako lanik txarrena?

Garbitzia.

Eta gustokuena?

Jendiakin tratua.

Sukaldari ona zara?

Ondio be asko daukat ikasteko...

Plater bat?

Amaren lapikotik irtetzen dan edozein.

Jan ezin dozun zerbait?

Penkak.

Ogitarteko bat eskatzekotan, zein?

Solomua piparrekin eta gaztaiakin.

Tabernako pintxorik arrakastatsuena?

Urdaiazpikua txakarekin.

Edari bat?

Ardaua edo garagardua.

Denpora librian zer egitten dozu?

Abestu eta mendira juan.

Inguruko mendi bat?

Txindoki.

Dutxan abesten dozu?

Ez.

Kantu bat?

Te quiero, Lilianarena.

Liburu bat?

A tragos, Begoña Huertasena.

Manixarik?

Terko samarra naizela.

Udan, hondartza ala piszinia?

Plaia.

Kirol bat?

Pelotia. Eugi gustatzen jat.

Domekan Reala Osasunaren kontra...

Reala laga eingo da.

Periodikuan irakurtzen dozun lehen gauza?

Portadia, titularrak.

Horoskopoa irakurtzen dozu?

Bai.

Zein zeñutakua zara?

Cancer.

Egindako azken oparixa?

Jertse bat, lagun bati.

Eta jasotako azkena?

Tabernia zabaldu dogula eta, dezente jaso dittugu.

Noiz hasten zara oporrek prestatzen?


Azkenengo egunian.

Nora egingo ziñuke bidaia bat?

Australiara edo Kanadara.

Amets bat?

Tabernia ondo juatia.



UDAKO IKASTARO TRINKOAK

**INGELES
FRANTSES
ALEMANA**

Uztailaren 2tik 20ra.

- GOIZEZ EDO ARRATSALDEZ.
- MAILA GUZTIAK
- ADIN GUZTIAK
- EGUNERO HIRU EDO LAU ORDU.


STONE HOUSE
HIZKUNTZAK

943 76 06 87. Ibargarai, 18.

MATRIKULA ZABALIK EKAINAREN 29ra ARTE

Kanpoko igerilekuak zabalik udako denboraldiaren hasieran

Astehenean zabaldu zituzten Agorrosingo kanpoko igerilekuak, udako denboraldiari hasiera emanez. Udal Kirol Zerbitzuaren arabera, irailaren erdialde arte izango dira zabalik kanpoko igerilekuak.

Udan igerilekuek ordu-tegi berria izango dute: 10etatik 21:00etara izango dira zabalik. Gimnasioa, berriz, 08:00etan zabalduko da.

Aurten ez da aparteko nobedaderik kanpoko igerilekuei dagokienez. Joan den zapatua ezkerro Eibarko Garapen proiektuak dauka sorosle zerbitzua eta igeriketa eskolen ardura. Udan, goizez, sorosle bat izango da igerilekuetan eta arratsaldez bi lagun arituko dira sorospen lanetan. Bestalde, sauna, solarium eta masaje zerbitzua Mariasun Belastegi bergararrari adjudikatu diote.



Borja Gonzalez eta Daniel Jimenez sorosleak eta Mariasun Belastegi sauna, masaje eta solariumeko arduraduna.

Prezioei dagokienez, 18 urtetik beherakoek 375 pezeta ordaindu beharko dituzte sartzeko eta 18 urtetik gorakoek, berriz, 550 pezeta. Halaber, hamar egunera-ko bonoak salgai jarriko dira: 3.100 pezetan gazteen-

tzat eta 5.100 pezetan nagusientzat.

Hamaken prezioa, berriz, honako hau izango da: 100 pezeta goizez, 200 pezeta arratsaldez (15:00etatik aurrera) eta 300 pezeta egun osoz alokatuz gero.

BAZKIDEAK GORA

Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko arduradunaren arabera, «sasoi honetan bazkide kopuruak gora egiten du; herritar askok egiten dute bazkide txartela sasoi honetan».

Aitor Zabaleta irabazle eta German Hernandez hirugarren izan dira Gorlako auto igoeran

Aitor Zabaleta bergararrak erraz irabazi zuen zapatuan jokaturako Gorlako auto igoeraren XI. ekitaldia. Zabaletak (Lola-Telefonica BMW) 3 minutu, 7 segundo eta 61 ehuneneko denbora egin zuen. Bigarren Xabier Lasa (Renault Megane Coupe) sailkatu zen, 6 segundo eta 21 ehunenekora. German Hernandez gazte bergararrak lasterketa bikaina egin zuen eta hirugarren postua lortu zuen. Renault

Clio Williams autoa gidatuz, 3 minutu, 17 segundo eta 24 ehuneneko denbora egin zuen Germanek.

Guztira 50 autok esku hartu zuten zapatuko proban. Azkenean, Andres Vilariño ez zen irteeran izan. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, zale asko bildu ziren Gorlako aldapetan lasterketa jarraitzeko. Bestalde, hainbat herritar kexatu egin dira bide bazterak zikinke- ritz josita laga zituztelako.



German Hernandezek lasterketa bikaina egin zuen zapatuan Gorlan.

Aurtengo uda-kanpaina hasi da

Kirolaz blai izenburua- rekin, udal Kirol Zerbitzuak aurtengo uda-kanpainari hasiera eman dio. Aurreko urteetan moduan, ume, gazte eta helduendako kirol jarduerak izango dira eta eskaintza oso zabala da aurtengo ere: igeriketa, piraguis-moa, pilota jolasak, defentsa pertsonala, eskalada, mendi bizikleta, arku tiroketa, patin-hockeya, patinajea edo raftinga egiteko aukera

izango da. Jarduera horiek bi txandatan egingo dira: lehena, ekainaren 25etik uztailearen 6a arte, eta bigarren txanda, uztailearen 9tik 20ra.

Kirol Zerbitzuak herritar- rarak uda-kanpainan esku hartzera gonbidatu nahi ditu, uda partea kirola egiteko sasoi aproposa dela kontuan hartuz. Kanpainaren gaineko xehetasunak Kirol Zerbitzuan jaso daitezke, 943 77 91 67 zenbakian.



Igerilekuetan piraguis-moa praktikatzeko aukera izango da.

ARTXIBOA



Zanguí Lezaman

Athleticek gonbidatuta, Bergarako Zanguí taldeak alebin mailako txapelketa jokatu zuen Lezaman. Zallari 2-0 irabazi zioten eta Ondarroaren aurka 0-1 galdu zuten. Argazkian, Zanguiko jokalariek Jose Antonio Pagaldai entrenatzailearekin.

Gimnasta bikainak

Euskadi ordezkatzuz, Aintzane Narvaezek eta Leire Lasak Espainiako Taldekako txapelketan esku hartuko dute aste-bukaeran, Zaragozan. Aintzane taldekako Espainiako txapelketarako txartela ere lortu du. Ane Miren Fernandez, berriz, Espainiako banakako txapelketan izango da Valentzian, Euskadiko txapelketan bigarren sailkatu ondoren.



Pazkoetako BIDEOA

GOITBko XELEBERRI saioko bideoa salgai 1.000 pezetan! Eskura ezazu Berrigarán!

Telefonoa:

943 76 03 97.

Irizar jauregia:

Barrenkalea 33,
Bergara.

Goitb
Goiena Telebista



INGELES IKASTARO TRINKOAK

Ekainaren 26tik uztailearen 20ra arte

HAURRENTZAT

GAZTEENTZAT

HELDUENTZAT



School of English

INFORMAZIOA:

Ibargarai 31, barruko plaza.
Tel. eta faxa 943 76 03 53.
espolonschool@teletel.es

MATRIKULA ZABALIK



Labegaraietako futbito txapelketa

Errotagain taldea liga eta kopako txapelduna

Errotagain taldeak (goiko argazkia) liga eta kopako finalak irabazi zituen asteburuan. Zapatuan, ligako finalean, 2 eta 1 irabazi zion Arrasateko Bar Ugarte taldeari (beheko argazkia). Carlos Romerok eta Juan Carlos Prietok sartu zituzten Errotagainen golak eta David Martinezek egin zuen Bar Ugarterena. Domekan berriro ere bi taldeak izan ziren aurrez aurre, kopako finalean, eta Errotagain, oraingoan, erraztasun handiagoz nagusitu zitzaion Bar Ugarteri: 5-1. Xabi Albisuak, Jose Maria Romerok eta Joseba Santorrek egin zituzten golak. Bar Ugarterena Oscar Chinarrak sartu zuen. Bi finalletara A multzoko lehenak heldu dira. Ligan Bar Ugartek lortu zuen lehen postua, baina Errotagainek eskuratu ditu txapelduneri zegozkien kopak. Iaz ere Errotagain bi finalletara iritsi zen. Liga eta kopako txapeldunak superkopako garaikurra ere irabazi du.



SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	54	22
2. Errotagain	52	22
3. Bildurbarek Opel Lam	43	22
4. Amoskibar	39	22
5. Pagomendi	34	22
6. Bar Canalejas	32	22
7. Fac	27	22
8. Eri	22	22
9. Irubide jatetxea	18	22
10. Torrekoa	7	22
11. Apa Oxemai	4	22

B multzoa

	P	J
1. Ortzi	42	19
2. Kanpazar Harrobia	41	19
3. Bayer	32	19
4. Amilotx	31	19
5. Aluminios Kresala	30	19
6. Agirrebeña jatetxea	18	19
7. Vacalouras	15	19
8. Cine Bank Irimo	11	19
9. Etengabe	4	19

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	39	17
2. Artusamak	37	17
3. Mongatxurak	36	17
4. Guadalest	27	17
5. Komando Piperrak	25	17
6. Shaktale	17	17
7. Txipiron	16	17
8. Patxaran Team	8	17

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

LXV. San Antonio saria zapatuan

Zapatuan, I. Honorio Agirregabiria Memoriale jokatu da San Antonion, 16:30ean. Bigarren urteko kadeteen Gipuzkoako txapelketa izango da. Txirrindulariek 70 kilometroko ibilbidea izango dute. 18:10 aldera bukatuko da.

Muguruzak finalerdietan galdu

Ander Muguruzak eta Mendiluzek 11-22 galdu zuten Mikel eta Casadoren aurka, Bergara Hiria pilota txapelketako finalerdietan. Martitzenean Igor Gutierrezek jokatu du senior mailako beste finalerdia.

karteldegia

PILOTA. Bergara Hiria
Vicente-Torres/Errea-Jauregi (promes.)
Larraia-Navarro/Castellanos-Gutierrez (seniorrak)
Finalerdietako partiduak.
Martitzena, 19:30. Udal Pilotalekua.

ipintzako txapelketa

■ **SENIORRAK**
Killers-Altos Pornos Astelehena. 19:15.
Txokokuak-Los Pepinos Asteleh. 20:30.
Tojuh-Bildurbarek Martitzena. 19:15.
Lacor Arloteak-Angiozar Martitz. 20:30.
Torrekoa-La Juve Eguaztena. 19:15.
Osintxu-Fo Fo Eguaztena. 20:30.

■ **NESKAK**
Potzu-Arloteak (seniorrak) eta
M. Lagundia-Fashion Fashion (kadeteak).
Zapatua, ekainak 16. 9:00.
San Martin-Soraluze eta Lotsagabeak-Arloteak (aleb.). Zapatua, ekainak 16. 9:45.
Pentol's Team-Arloteak eta
Lai Lai Lai-Arranua (seniorrak).
Zapatua, ekainak 16. 10:45.
Lotsagabeak-Soraluze (alebinak) eta
Eibartarrak-Mariaren Lagundia (kadet.).
Eguena, ekainak 21. 18:30.

■ **FUTBOL 7**
Bildurbarek Ope Lam-Guipuzcoana eta
Arloteak-A Ze Flaxa Eguena. 19:30.
Angiozar-Ezinleike eta
Amilotx-Bar Canalejas Eguena. 20:30.

San Martin

herri eskolak

Euskal Aste Kulturalean egingo diren ekitaldien berri eman nahi dizue

Honekin bost ikasturte izango dira udako oporrak hartu aurretik Euskal Astea ospatzen dugula. Aste horretan euskal kulturarekin lotura zuzena duten hainbat ospakizun egiten ditugu. Helburua hauxe da: euskal kulturako jarduerak era atseginean eginez, kultura horren ezagupena zabaltzea eta afektiboki oroitzen positiboa izatea.



Hona hemen ikasturte honetako programa:

- **Ekainak 15:** Txupinazoa. Pregoia. Hormirudiak.
- **Ekainak 18:** Bertsoak. Abestiak. Olerkiak.
- **Ekainak 19:** Euskal dantzak.
- **Ekainak 20:** Haur Hezkuntzakoek txangoa eta Lehen Hezkuntzakoek pilota txapelketako finalak.
- **Ekainak 21:** Jolas tradizionalak. Ipuinak. Asmakizunak. Txisteak...
- **Ekainak 22:** Haur Hezkuntzakoek jolasak eta Lehen Hezkuntzakoek txangoa.



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

bergarako ikastetxe publikoak





MIGUEL ANGEL EL KORBETZIDOR

bonofotoa

Zein etxe aurreko zoruan daude harlauza hauek?

galde debalde

1. Noiztik aurrera erabili beharko dugu euroa pezeta erabili beharrean?


- A- 2002ko urtarrilaren 1a
- B- 2001eko urtarrilaren 1a
- C- 2002ko uztailaren 1a

2. Zein omenduko dute San Antonio jaietan eta txirindulari lasterketari bere izena jarri?

- A- Honorio Agirregabiria
- B- Don Serafin Esnaola
- C- Paduako Antonio

3. Zenbagarren postuan sailkatu zen German Hernandez Gorlako igoeran?

- A- Seigarren postuan
- B- Hirugarren postuan
- C- Lehen postuan



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Encarna Lasheras**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Encarnari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Gorostia**

Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Baque kafea
ehoa eta nahastua, 250 gr.

205 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Datorren domekan Udaberriko Kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasleek

Azken urteotako ohiturari jarraiki, Musika Eskolako ikasle eta irakasleek, Udaberriko Kontzertua eskainiko dute ekainaren 17an. Udal pilotalekuan izango da, 12:30ean.



Musika Eskolako ikasleak izango dira protagonista domekako kontzertuan.

Aurten hamahirugarren urtea beteko du Musika Eskolaren Udaberriko Kontzertuak. Kontzertu horretan eskolako ia ikasle guztiek hartzen dute parte hainbat taldetan banatuta. Aurtengo kontzertuko egitaraua honakoa dugu: Gazte Bandak 'Euskal Dantzak' eta Alan Menken-en 'Beauty and the Beast' eskainiko ditu. Akordeoi orkestrak Alan Menken-en 'Aladdin' eta Elton Johnen 'The lion king' obrak joko ditu domekan. Haurren Abesbatzak S. Secundaren 'Umetxoaren ametsak' eta Sarasolaren

'Lau euskal abesti' eskainiko ditu. Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoari dagokionez, hiru obra eskainiko ditu; Bizeten 'Carmen', Bachen 'Sinfonia Branderburgo' eta 007 agentearen filmetako hainbat pieza.

Azkenik, Musika Eskolako talde guztiek eta Hizkuntza Musikaleko lehenengo bi kurtsoetako ikasleek

Holffmann-en 'Barcarola' joko dute.

Hala ere, aipatutako kontzertua eguneko emanaldi nagusia izan arren, bestelako ekitaldiak ere izaten dituzte Musika Eskolako kideek egun horretan. Goizeko 11:30ean trikitilarien kalejira egongo da. Eta Udaberriko Kontzertuaren ostean, 14:30 aldera, herri baz-

karia izango da Espoloiari. Bazkaldu ondoren, dantzaldia egingo dute hurbiltzen diren guztiekin batera.

KURTZO AMAIERA

Ikasturte amaierarekin batera, Musika Eskolako neska-mutikoez urtean ikasitakoa erakusteko hainbat emanaldi eskaintzeko ohitura dute. Horretarako kontzertu sorta luzea antolatzen dute, eta dagoeneko hasi dira emanaldi horiek eskaintzen. Lehenengoa maiatzaren 31n eskaini zuten. Hartan, trikitixa kontzertua izan zen, eta aste honetan zehar ere beste hainbat kontzertu eskaini dituzte.

Ikasturteari amaiera emateko, azken emanaldia ekainaren 21ean eskainiko dute Zabalotegiko aretoan, 19:00etan, eta hilaren 22an, ikasleei diplomak banatuko dizkiete ordu berean.

Udaleko literatura lehiaketako sariak banatu dituzte



Argazkian saria jaso dutenak zapatuko ekitaldiaren amaieran.

XVI. Koldo Eleizalde lehiaketako sariak banatu zituzten zapatuan. Udaleko Euskara Zerbitzuak antola-

tzen duen sariketara 303 lan aurkeztu zituzten. Ohi bezala, adinaren arabera bost taldetan banatuta egon da.

Sarituak

■ 8 ETA 9 URTEKOAK

1. **Zaldia eta otsoa** Jokin Etxabe
2. **Untxia** Ane Vicente
3. **Doroteo eta Jaime** Markel Saez de Jauregi

■ 10 ETA 11 URTEKOAK

1. **Galtzerdien gorabeherak** Miren Zaloña
2. **Barea karakolen erregea** Maite Aranzabal
3. **Sator irakurle, besteak entzule** Idoia Larrañaga

■ 12 ETA 13 URTEKOAK

1. **Pitxilore arazoetan** Arianna Arizabaleta
2. **Izenen lapurra** Ander Urriolabeitia

3. **Poza berreskuratzeko giltza**

Mireia Amasorrain

■ 14, 15 ETA 16 URTEKOAK

1. **Belaunaldiz belaunaldi** Iñaki Manuel

2. **Elosuko mamua** Jone Muruamendiaraz

3. **Nire aitaren bizarraren bila**

Itsaso Azkargorta

4. **Aukeratu gabeko etorkizuna**

Maite Bilobar

■ 17 URTETIK GORAKOAK

1. **Zuk nahi duzuna, maitia** Ariane Menor

2. **Egun argian** Agurtzane Crespo

3. **Psikopata baten egunerokoa** Erik Cuevas

Sari berezia. Gorgonio ijitxuaren bizitzeko era Natalio Juaristi

Nagusien taldean, olerkiari dagokion saria hutsik geratu da. Ekitaldia Zabalotegiko aretoan izan zen, eta

Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxetako neska-mutikoez hainbat ekitaldi eskaini zituzten.



Or-Konpon taldearen irteera, 1947

Garai batean Or-Konpon taldeak egiten zituen irteerak berreskuratu nahirik, Pertxa elkarteko hainbat lagun eta beste zenbait herritar (40 lagun inguru) Errioxara joango dira bihar, zapatua, ekainak 16. Or-Konponekoek egiten zuten bezalaxe, aurretik, Bandako kideen laguntzarekin kalejira egingo dute herriko kaleetatik, goizeko 8:15 aldera. Jarraian Frontoian autobusa hartu eta Navaridas eta Biasterira joango dira egun pasa. Bueltan,

19:30 aldera, beste kalejira bat egingo dute Espolotik hasi eta herriko kaleetaraino.

Goiko erretratua Or-Konponek 1947ko uztailaren 21ean egindako irteera batekoa da. Ez dugu jakiterik izan non ateratakoa den. Kontuak kontu, Or-Konponekoek urtean behin irteeraren bat egiten zuten, inguruko herrietara edo kostaldera, Donostia aldera gehienetan. Jeneralean uda partean antolatzen zituzten aipatutako irteerak, eta Udal Musika Bandakoekin joaten ziren kanpora.

Honako hauek dira mahaiaren bueltan agertzen direnetako batzuen izenak, ezkerretik eskumara:

Pako Lazkano "Txurrero", Luis Igartua "Txatxi", Sebastian Latorre (burua aurrerata daukana), Natalio Juaristi, Jose Igartua (mahaiaren hondoan), Felix Aranburu, Jacinto Gonzalez, Pako Uribesalgo, Fernando Juaristi, Manolo Larrea, Matias Azkarate eta Miguel Gonzalez.

Argazkia: Luis Gutierrez

ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak eta heldulekuak
Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea
☎ 943 76 18 93



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikuluak
- Seinalaztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



*Gozogintzan
aitzindari.*

Laser depilazioa

*Ez zara
damutuko.*



Zure gorputzak merezi duelako

Berreskura itzazu edertasuna
eta harmonia
Tratamendu pertsonalizatuak



Dei egizu konpromiso barik, behar
beste informazio emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA



Etxeko altzariak

Egongelak

Logelak

Sukaldeak

Osagarriak



**Carpinteria
GARITANO
Aroztegia**

Ondarre, 9. ANTZUOLA.

Tel.: 943 76 62 45. Faxa: 943 78 71 16.

Ateak

Leihoak

Horma-armairuak

Parketak

Arotz lanak

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

Jakina,
zurekin
pentsatzen



6 URTEKO
GARANTIA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.